

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Negozio eredu batek funtzionatzea ahalbidetzen duen hornitzaile eta bazkideen sareak osatzen ditu funtsezko elkarteak. Izan ere, enpresa batek zenbait arrazoi direla medio aliantza egin dezake beste batekin.

Alde batetik, harreman estua izango dugu bai hornitzaileekin, eta baita Ikerkuntza, Garapen eta Berrikuntza enpresa batekin ere, kontuan izanda enpresa hauek jakintza teknikoan espezializatuak direla. Izan ere, gure ahalmen eta ezagutzak mugatuak dira, eta beraz, zailtasun handiak ikusten ditugu produktua fabrikatzeko eta gure nahia errealitate bihurtzeko.

Ikerkuntza, Garapen eta Berrikuntza proiektuan sartuta dagoen enpresaren laguntza guretzat oso garrantzitsua izango da, gure produktuaren diseinuan aldaketak eta berrikuntzak egingo dituztelako, gero hornitzaileek produzitu ahal izateko. Horrela, pixkanaka-pixkanaka gu ikasten joango gara.

Beste alde batetik, gure artean ere sortuko da funtsezko itun bat, bakoitzak funtsezko baliabide bat jarritz. Itsasok termoen diseinuak sortzeko sormena izango du; Anek bere informatikako ezagutzak erabiliz webgunea sortuko du; eta Liernik eta Aniak gaitasun komertziala izango dute.

Azkenik, LogikaLine enpresarekin azpiegitura bat konpartituko dugunez, hau da, bulegoa dagoen eraikuntza, berarekin ere aliantza sortuko dugu. Horrela kostuak murriztu ahal izango ditugu.

Uste dugu oso garrantzitsua dela beste enpresa batzuekin harremanak izatea, izan ere, ez baita ez logikoa ez praktikoa enpresa batek bere kabuz egin nahi izatea jarduera guztiak. Horren ondorioz, gure enpresak dituen aliantzak beharrezkoak iruditzen zaizkigu negozio-ereduaren optimizazioa lortzeko, galera ekonomikoetarako arriskuak murrizteko eta baliabideak eskuratzeko.

